




Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

GIZARTE
ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIAS SOCIALES
Y DE LA COMUNICACIÓN



Irakaskuntza gida

PUBLIZITATEA ETA HARREMAN PUBLIKOETAKO GRADUA

www.ehu.eus/gkz-csc





Publizitatea eta Harreman Publikoetako Graduaren helburua da ikasleak prestatzea **komunikazio kanpaina integralak diseinatu eta sortzeko**, eraginkorrak eta XXI. mendeko hedabideetara egokituak (internet, bideojokoak, telebista, irratia, zinema, multimedia teknologia berriak eta telefonia mugikorra). Era guztietako proiektu profesionalak egiten ikasiko duzu publizitate formatu desberdinetan.

Irrati eta argazki laborategiak, telebista platoak, bideo ediziorako gelak, audio eta bideo digital postprodukzioko laborategiak eta ediziorako zein diseinu grafikorako multimedia-gelak, publizitateko eta harreman publikoetako espezialista bilakatzeko bidean, Fakultateak eskaintzen dizkizun baliabideetako batzuk baino ez dira.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu:

- Erraztasunez eta eraginkortasunez komunikatzeko.
- Taldean lan egiteko gaitasuna lantzeko.
- Gertaerak eta proiektu komunikatiboak modu kritikoan baloratzeko.
- Publizitateko eta harreman publikoetako proiektuetan estrategiak eta ekintzak diseinatzeko.
- Komunikazio arazoen aurrean irtenbide sortzaileak aplikatzeko.
- Merkatuak eskatzen dituen publizitate eta harreman publikoen arloko profil profesional desberdinetan lan esperientzia eskuratzeko.

Eleaniztasuna

Publizitatea eta Harreman Publikoetako Gradu oinarrizko eta nahitaezko irakasgai guztiak eta hautazkoetako gehienak autonomia erkidegoko bi hizkuntzetan eskaintzen dira, **euskaraz eta gaztelaniaz**. Gradu Amaierako Lana bi hizkuntza hauetako edozeinetan egin daiteke.

Gainera, nazioarteko profila aitortu ahal zaizu Nazioarteko Sakontze Aipamena lortzen baduzu.

Prestakuntza duala

Prestakuntza dualeko ibilbidea aukera dezakezu, unibertsitatean eta enpresa edo erakunde batean prestakuntzaaldiak konbinatzen dituen.

Profil profesionalari dagozkion gaitasunak garatu ahal izango dituzu, enpresen edo erakundeen ingurune erreal batean ikasiz eta aipamen espezifiko bat lortu.

Prestakuntza osagarria

Graduaren edukiei lotutako hainbat arlotan espezializatutako prestakuntza praktikoko ikastaroak eskaintzen ditu fakultateak graduaren zehar. Ikastaro hauek osagarriak eta doakoak dira horietakoren batean izena eman nahi duten ikasleentzat.

IKASKETA-PLANA

KREDITU BANAKETA ETA IKASTORDUAK GUZTIRA

Maila	Adarreko Oinarrizko Irakasgaiak	Beste adar batzuetako Oinarrizko Irakasgaiak	Nahitaezko Irakasgaiak	Hautazko Irakasgaiak	Gradu Amaierako Lana	Guztira
1	54	6				60
2			60			60
3			36	24		60
4			24	24	12	60
GUZTIRA	54	6	120	48	12	240

AIPAMEN ETA AITORTZAK

Nahi izanez gero, Gradu hiru aipamenetako bat ikas dezakezu. Aipamena lortzeko bere hautazko irakasgaiak gaindituta izan behar dira, hirugarren eta laugarren mailetan.

KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO ZUZENDARITZA (1A)	SORMENA (2A)	DUALA
Komunikazio Publikoaren Zuzendaritza	Sormena II	Ordaindutako egonaldia enpresan edo erakundeetan 3. eta 4. mailetan. Tutoretzapeko prestakuntza ibilbidea: - 48 kreditu, hautazko 8 irakasgairen baliokidea. - Gradu Amaierako Lanaren 12 kreditu.
Bozeramaileen Prestakuntza	Arte Zuzendaritza	
Komunitate Birtualen Kudeaketa	Diseinu Grafiko Aplikatua	
Komunikazioaren Kudeaketa Nazioarteko Erakundeetan	Ikus-Entzunezko Narratiba	
Marketin Digitala	Publizitateko Multimedia Errealizazioa	

Gainera, ondoko aipamen eta aitortza hauek lortu ahal dituzu:

NAZIOARTEKO SAKONTZEA	EUSKARA*	BIKAINASUNA
<p>Baldintzak:</p> <ol style="list-style-type: none"> Gutxienez 15 kreditu atzerriko hizkuntzetan edo UPV/EHUK eskaintzen duen «Intercultural Competences» ikastaroa egitea. Nazioarteko egonaldi bat, gutxienez hiru hilabetekoa, UPV/EHUko truke programa batean. Atzerriko hizkuntza batean C1 maila edo goragokoa. 	<p>C1 mailaren titulua aurkeztetik salbuesten duen ziurtagiria:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 48 Kreditu euskaraz + Gradu Amaierako Lana + Euskarako hizkuntza prestakuntzako 12 Kreditu espezifikiko. - 84 Kreditu euskaraz + Euskarako hizkuntza prestakuntzako 12 Kreditu espezifikiko. - 114 Kreditu euskaraz + Euskarako hizkuntza prestakuntzako 6 Kreditu espezifikiko. - 144 Kreditu euskaraz. 	<p>Graduko kreditu guztiak lehenengo ohiko deialdian gainditzen badituzu.</p>

* Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, UPV/EHUk ikasle bakoitzaren espediente akademiko pertsonalean automatikoki jasotzen du ikaslea salbuetsita izango dela C1 mailaren baliokide diren euskarako hizkuntza-tituluak eta ziurtagiriak egiaztatzei, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Ingurune Ekonomikoaren Analisia

Adarreko Oinarritzkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Ingurune historiko, politiko, soziala eta ekonomikoa adieraztea, eta ekonomia zientzia bezala metodologiaren ezaguera ulertzea. Oinarritzko ezaguera lortzea errealitate ekonomikoa interpretatzeko eta analizatzeko asmoz. Ekonomia jarduera aztertzeke tresna eta adierazle nagusiak ezagutzea. Informazio ekonomikoa biltzeko, ulertzeko eta aztertzeke gai izatea.

EDUKIAK

Analisi ekonomikoren sarrera: oinarritzko gaiak. Analisi mikroekonomikoa: merkatu ekonomiak. Ingurune ekonomiakoaren analisia: aldagai eta adierazle nagusiak. Egonkortze-politikak. Enplegua eta lan-merkatua. Beste desoreka makroekonomikoak.

Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Instituzionala

Adarreko Oinarritzkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Hainbat kontzeptuz jabetzea, hala nola publizitatearen arloko komunikazioaren eta harreman publikoen analisi eta planifikazioa, eta hedabideekin harremanetan jartzeko baliatu ohi diren teknikak eta estrategiak. Ikuspegia zabaltzea informazioaren kudeaketan modu eragingarrian aritzeko, bai barne- bai kanpo-komunikazioaren arloan, edozein delarik enpresa edo erakunde mota.

EDUKIAK

Komunikazioa zuzendaritza-estrategia gisa. Komunikazio komertziala. Komunikazio korporatiboa: identitatea, kultura eta jarrera korporatiboa. Komunikazio instituzionala eta politikoa. Komunikazio teknikak: Publizitatea, Harreman Publikoak, Patrozinioa, Mezenazgoa, Ekintza Bidezko komunikazioa, Ekitaldien antolaketa, Promozioen komunikazioa, Propaganda, etab.

Ikus-entzunezko Hizkuntza

Adarreko Oinarritzkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Garrantzitsuak eta funtsezkoak diren kontzeptuak ezagutzea eta tresna metodologiko egokiak erabiltzea ikus-entzunezko mezuak (publizitate-irudiak, telebistako erreportajeak, serieak, filmak, etab.) zehaztasun eta koherentzia handiagoz interpretatzeko eta lantzeko. Ikus-entzunezko testuen aurrean izpiritu kritikorekin aztertzeke beharrezkoak diren gaitasun minimoak garatzea.

EDUKIAK

Lengoaia eta Komunikazioa: irudiaren gizartea, oinarritzko definizioak. Ikus-entzunezko pertzepzioa. Ikus-entzunezko irudikapena. Ikus-entzunezko osagaiak: eszenaratzea, kodratzea eta planoen antolamendua, mugimendua, soinuaren osagaiak. Mugimendua: espazio eta denbora jarraitutasuna, trantsizio-elementuak, muntaketa.

Berrien Idazkera

Adarreko Oinarritzkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Ordenagailuko Praktikak.

HELBURUAK

Kazetaritza-Idazkeraren munduan murgiltzea, hedabide inprimatupei begira. Albistea eta bere osagaiak (titulua, sarrera, gorputza...) lantzea. Kazetaritza-generoak ikastea eta genero horien testu-ezaugarriak bereiztea. Kazetarien betebeharrak zein testuingurutan gauzatzen diren ezagutzea.

EDUKIAK

Interpretazioa kazeta-jardunean. Kazetaritza-lengoaia eta kazetaritza-generoak. Albistea eta horren idazketa. Titulu informatiboa. Informazioaren sarrera. Albistearen corpusa. Gertakarien balorazioa. Informazio-iturriak. Kazetari-jarduna testuinguru legalean. Espainiako hedabideen ekosistema. Interneterako informazioa.

Euskararen Erabilerak Komunikabideetan (euskarako taldea)

Beste adar batzuetako Oinarritzkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Ikasleak hizkuntzaren garapenean duen erantzukizunaz jabetzea. Komunikabideetako genero nagusien hizkuntza-ezaugarriak eta baliabideak identifikatzea eta praktikan garatzeko gaitasunak lantzea. Estilo gomendio nagusiak ezagutzea, eta hizkuntza-auziak kritikoki aztertu eta erabakitzeke gaitasuna garatzea.

EDUKIAK

Hizkuntza Komunikabideetan: Erronkak. Generoak eta erregistroak: Hizkuntza estrategiak. Komunikabideetako hizkeraren estiloa: Gida-lerro nagusiak.

Gaztelaniaren Erabilerak Komunikabideetan (gaztelaniako taldea)

Beste adar batzuetako Oinarritzkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Ordenagailuko Praktikak.

HELBURUAK

Hizkuntza baten araudia erregulatzen duten hiru eremuen inguruan hausnartzea: idazkera zuzena, hiztegiaren erabilera ona eta gramatika-arauak menderatzea. Espainieraz edozein formatu zein hedabidetan argitaratutako testuetako erabilera ortografikoak, gramatikalak eta lexikoak ikastea.

EDUKIAK

Arau linguistikoaren kontzeptua eta Akademien eginkizuna. Espainieraren aldaerak: diatopika, diastratika, diafasika. Akademia, Cervantes Institutua, Fundéu, estilo-liburuak eta interneteko espainierari buruzko hainbat webgune. Ortografia. Gramatika: morfologia eta sintaxia. Lexikoa.



LEHEN MAILA - 2. Lauhilekoa

Komunikazioa eta Publizitatea: Pertsuasio-estrategiak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Pertsuasioak egungo gizarteetan duen funtzioaz jabetzea eta agerpen desberdinak bereiztea. Pertsuasio elkarrekintzan parte hartzen duten prozesu psikologikoak interpretatzea. Komunikazio egoeraren araberako estrategia eta mezu pertsuasiboak diseinatzea.

EDUKIAK

Ahozko komunikazioa: Komunikazioa pertsonaz pertsona eta komunikazio publiko baten aurrean. Aktitudeak eratzea eta aldatzea. Pertsuasioaren ikuspuntu teorikoak. Pertsuasio-iturria. Mezua. Ezaugarri pertsonalen eragina pertsuasioan. Pertsuasioaren testuingurua.

Komunikazioari Aplikatutako Estatistika

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Ordenagailuko Praktikak.

HELBURUAK

Komunikazioan gizarte ikerketa egiteko egun garatzen diren hiru lerroak barnebiltzea: kazetaritzatik eratorritakoa, publizitatean garatutakoa eta ikus-entzunezko komunikazioko ikerketekin harremanetan dagoena.

EDUKIAK

Ikerketa prozesua eta estatistika ikerketan. Estatistika deskribatzailea eta estatistika inferentzialera sarrera. Datu kuantitatiboan hedapena eta hedabideak.

Informazio Generoak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Informazio genero nagusiak ezagutzea: berria, elkarrizketa, erreportajea eta kronika. Kazetari-irizpidea zimendatzea eta bultzatzea. Informazio-edukia lortzea, egituratzea, laburbiltzea eta idaztea.

EDUKIAK

Sarrera: Kazetaritza hizkuntza eta estiloa. Kazetaritza generoak. Albistea: Osagaiak eta egitura. Erreportajea. Elkarrizketa. Kronika.

Gaur Egungo Munduaren Historia

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Munduko eta bereziki Europako bilakaera historikoaren ildo nagusiak baloratzea XX. mendean zehar, horrela bizi dugun mundua ulertu ahal izateko. Testu, grafiko eta mapa historikoak aztertzea. Historialari eta bestelako gizarte zientzialarien liburuei buruzko aipamen kritikoak idaztea.

EDUKIAK

Bigarren Mundu Gerraren osteko nazioarteko ordena berria. Europaren eraikuntza-prozesua. Herri-demokraziak Europan. Deskolonizazioaren hastapenak. Kontinente amerikarra II Mundu Gerraren amaieratik. Herri afroasiatikoen esnatzea. Mundu kapitalistaren bilakaera. Deskolonizazioaren bukaera. Sistema sozialistaren hondamena eta Sobiet Batasunaren desagertzea. Ordena berri baterantz.

Ikus-entzunezko Sormen Teknikak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Laborategiko Praktikak.

HELBURUAK

Ikus-entzunezkoen alorreko proiektuen diseinu eta errealizazioarekin erlazionaturiko oinarri teorikoak eta praktikoak ezagutzea. Ikus-entzunezko egitasmo berritzaileak sortu eta abian jartzeko gaitasuna garatzea.

EDUKIAK

Bideo-seinalea: Oinarri teknikoak, mugimendua, kolorea. Kamerak: motak, oinarriak, osagaiak. Objektiboak: diafragma, enfokea, foku- distantzia, enfoke ingurua. Edizio ez lineala. Argia. Soinua eta mikrofonoak.



BIGARREN MAILA - 1. Lauhilekoa

Web Edukien Idazkera eta Sorkuntza

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Interneteko generoen oinarriak lantzea; haien ezaugarrietan, egituretan, erabileran eta estiloan sakonduz. Hau da, zibergeneroen ezaugarriak, estilo eta narrazio-teknikak aztertzea, banan-banan, hipertestua, multimediatasuna eta elkarreragina bezalako bereizgarrietan oinarrituz. Ohiko informazio-genero, interpretazio-genero eta iritzi-generoekin praktikatzea.

EDUKIAK

Sarrera: Ziberkazaritza eta kazeta-idazketa berria. Interneteko testuinguru mediatikoa eta erredakzio lana. Ziberkazeta-mezua interneten: Interneteko kazetaritza-lengoaiaren ezaugarri oinarriak; Ziberkazaritza-generoak; Bilaketa tresnetarako idazkera eta posizionamendua; Kazetariaren marka pertsonala.

Dokumentazio Iturrien Kudeaketa

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Ordenagailuko Praktikak.

HELBURUAK

Alfabetizazio informazionalaren inguruko ezagutza orokorrak eskuratzea, ikasleak gaitasuna izan dezan ikaskuntzan zein lanean beharko dituen informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko, eta, halaber, modu etiko eta eraginkorrean erabiltzen jakin dezan. Eduki espezializatuko informazioa eta komunikabideei eta lan informatiboari lotutako teknikak eskuratzeko baliabideak lantzea, iturrien digitalizazioa eta horiek internet bidez nola eskuratu kontuan hartuta.

EDUKIAK

Dokumentazio Informatiboa: zer da eta zertarako balio du. Informazio- eta Dokumentazio-iturriak: informazioa non aurkitu, erreferentziako lanak. Prozesu dokumentala: informazioa nola hautatu, analizatu eta gorde. Ikerketa lanen metodologia. Aipua eta erreferentzia bibliografikoak. Gradu Amaierako Lanak. Informazioa berreskuratu. Interneti buruzko hausnarketa. Dokumentazioaren aplikazioa Komunikazioan.

Marketina: Kontzeptuak, Estrategiak eta Teknikak

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Marketin Planaren elementuak ulertzea, bere helburuak eta tresnak barne. Aipatutako plana enpresaren barruan non kokatzen den ulertzea. Marketin Plan bat egitea.

EDUKIAK

Marketinaren kontzeptuak eta garapena. Merkatua eta bere ingurugiroa. Kontsumitzailearen jokabidea. Produktua. Prezioak. Komunikazioa. Banaketa.

Harreman Publikoen Teoria

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Enpresek, erakunde publikoek eta elkarte sozialek aurrera eramaten duten harreman publikoetako estrategien oinarri teorikoak aztertzea. Inguruko elkarten komunikazio planak garatzen hasia.

EDUKIAK

Harreman Publikoen garapena. Harreman Publikoak Europan, Asian, Afrikan eta Amerikan. Harreman Publikoen izaera. Harreman Publikoen antolamendua eta zuzendaritza. Ikerketa Harreman Publikoetan. Iritzi Publikoa eta Harreman Publikoak.

Publizitate eta Harreman Publikoetako Sistemak eta Prozesuak

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Ordenagailuko Praktikak.

HELBURUAK

Merkatuak eskatzen duen publizitate eta harreman publikoen alorrean, profil profesional desberdinen lanaren errealitatera hurbiltzeko asmoz, inguru eta ohitura profesionalen ezaguera eta esperientzia lortzea.

EDUKIAK

Publizitate sistema: Sistemak, prozesuak eta kalitatea. Komunikazio sistema eta prozesuak iragarlean. Publizitate enpresaren sistema eta prozesuak. Teknologia berriak publizitatean eta harreman publikoetan.



BIGARREN MAILA - 2. Lauhilekoa

Publizitate Idazkera

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Marketin estrategia ulertzea eta sormen estrategia diseinatzea. Sormen estrategia hainbat hedabide motatan aplikatzea, bai konbentzionaletan, bai hedabide digital berrietan. Publizitateko testu adierazgarriak idaztea. Proiektu bat ahoz aurkeztea eta defendatzea.

EDUKIAK

Publizitate idazketarako sarrera. Sormen estrategia planifikatzea eta garatzea. Publizitate erredakzioaren baliabide nagusiak. Publizitatearen idazketa aplikatua. Idazketa elebiduna eta eleaniztuna.

Harreman Publikoen Teknikak

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Harreman Publikoen teknika nagusiak ikasi eta erabiltzeko gaitasunak hartzea: publicity-a, online komunikazioa, Harreman Publikoen publizitatea, ekintzak eta lobbying-a.

EDUKIAK

Idatzizko, ahozko eta ikus-entzunezko komunikazioa. Internet Harreman Publikoetan. Publizitatea Harreman Publikoetan. Ekintza Bereziak Harreman Publikoetan. Hedabideak. Barne Komunikazioa. Komunitatea. Kontsumitzaileak. Erakunde Publikoak. Gobernu kanpoko erakundeak.

Publizitatearen Historia

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Publizitateak izan duen garapena baloratzea, betiere gizarte modernoaren artikulazio eta garapenari laguntzen dion komunikazio fenomeno eta teknika bezala ulertuta.

EDUKIAK

Publizitatearen historiaurrea: Publizitatearen aurrekariak. Publizitatearen jaiotza. Publizitatearen sendotzea. Publizitatearen zabaltzea. Publizitatearen berritzea. Publizitatea XX. mendearen azkenaldian eta milurteko berrian.

Pentsamendu Politikoaren Historia

Adarreko oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Aro moderno eta garaikideetan botere politikoaren auziarekin arduratu diren eta eragin handikoak izan diren pentsalarien ideia nagusiak jorratzea. Filosofia politikoaren hausnarketa-esparruan oinarrituta, ikuspuntu normatiboa eta abstraktua garatzea. Gure egunetako ildo ideologiko nagusien ezaugarri aipagarrienak ulertzea.

EDUKIAK

Pentsamendu politiko eta Historia. Modernitatea eta bere aurrekariak. Absolutismoa eta Ilustrazioa. Iraultzen aroa. Mundu garaikidearen ideologia eta mugimendu politiko-sozialak.

Komunikazioko Ikerketa Metodoak

Adarreko oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 21 h Gelako Praktikak; 7 h Ordenagailuko Praktikak.

HELBURUAK

Ikerketa zientifikoaren arloan prestatzea. Komunikazio, marketin eta harreman publikoen eremuetan, kontsultarako eta zuzendaritzarako lan postuak betetzeko baliagarriak diren gaitasunak lortzea.

EDUKIAK

Ikerketa eta bere prozesua. Ikerketa proiektua. Ikerketa kuantitatiboa inkestaren bitartez. Ikerketa kualitatiboa elkarrizketa/talde elkarrizketaren bitartez. Ikerketaren emaitzak aurkeztea.

HIRUGARREN MAILA - 1. Lauhilekoa

Diseinu Grafikoa

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Ordenagailuko Praktihak.

HELBURUAK

Ikus-lengoiaren funtsak ikastea, publizitate euskarri grafikoak aztertuz. Elementu grafikoak erabiltzeko momentuan erabaki egokiak hartzen ikastea, prozesuan akatsak zuzenduz.

EDUKIAK

Korrante estetikoaren eragina eta Diseinu Grafikoaren maisuak. Tipografia. Diseinu Grafikoaren funtzio eta funtsa.

Hedabideen Plangintza I

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Ordenagailuko Praktihak.

HELBURUAK

Komunikabideen baliabideak eta bere ekarpenen ezaugarriak ezagutzea. Mezuaren dibulgaziorako komunikabide egokienak aukeratzen ikastea, hori funtsezko elementua delako publizitate-kanpainak kudeatzeko, iragarle edo hedabide-agentzia ikuspuntutik.

EDUKIAK

Komunikazio pertsonala masiboaren kontra. Komunikabide masiboak, komunikabide publizitarioak bezala. Informazio-iturriak. Aukeraketan erabilitako oinarritzko kontzeptuak eta plangintza komunikabideak: Audientzia, Errentagarritasuna, Komunikabide-plan balioespenak. Estatu espainiarreko komunikabide eskaintza: Eguneko prentsa, Iganderoko gehigarriak, Aldizkariak, Kanpoko publizitatea, Telebista, Irratia, Zinema, Internet.

Komunikazioaren Eraginkortasuna

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktihak.

HELBURUAK

Publizitatearen eraginak neurtzeko ikerketa teknika ezberdinak ikastea. Publizitate-eraginkortasunari buruzko jakintza zientifikoa ezagutzea, "ad hoc" ikerketa propioak diseinatzeko gai izateko.

EDUKIAK

Publizitatearen efektu motak. Neurtzeko metodologiak. Publizitatearen efektu psikologikoak. Publizitate-eraginkortasuna sare sozialetan. Efektu makroekonomikoen ikerketa.

Marketin Digitala (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Gelako Praktihak.

HELBURUAK

Komunikazio eta marketin digitalaren berezitasunak ezagutzea. Ingurune horretan komunikatzeko teknika, estrategia eta tresna espezifikokoak ikastea.

EDUKIAK

Marketin 1.0tik marketin 2.0ra. Erakartzea: edukia, blogak, webak, sare sozialak, Influencers, SEO, SEM, Bilatzaileak, Display eta retargeting, afiliazio marketina. Bihurtzea: Leads, Landing Pages, Produktu orria, Mobile Marketing, pertsuasio teknologia. Ixtea: CRM, Email Marketing. Fidelizatzea: edukiaren garrantzia, Cross selling-a.

Arte Zuzendaritza (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Ordenagailuko Praktihak.

HELBURUAK

Arte Zuzendaria zer den eta bere lana zertan datzan ulertzea. Arte zuzendaritzari, argazki eta produkzio zuzendaritzari dagozkien teknika eta prozeduraz jabetzea, publizitate proiektuen garapenaren ikuspuntutik.

EDUKIAK

Arte zuzendariaren figura: Arte Zuzendaria?; Arte Zuzendaria Publizitatearen Historian zehar; Publizitate agentzia eta Sortze Saila gaur egun. Zerbait esatea: Zer esan nahi den; Nola esango den; Non esango den.

Ikus-Entzunezko Narratiba (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak.

HELBURUAK

Kontaktetaren Teoriak dituen oinarritzko printzipioetan trebatu, ikus-entzunezko testuetara egokituz.

EDUKIAK

Kontaktetaren oinarritzko kontzeptu eta ezaugarriak. Kontatze-teoriak: Propp eta Campbell. Egitura-analisia: Greimas. Ikuspuntua. Espazioa eta denbora.

Prestakuntza Duala I

Hautazko ibilbidea. 24 kreditu. Praktihak enpresa edo erakundeetan.

HIRUGARREN MAILA - 2. Lauhilekoa

Hedabideen Plangintza II

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Ordenagailuko Praktikak.

HELBURUAK

Komunikabide- planak diseinatzea, analizatzea eta garatzea, publizitate-komunikazio eta harreman publikoko arazoan erabakira bideraturiko irizpideak emanez.

EDUKIAK

Komunikabide-Plana. Informazio-Fasea. Akzio Fasea: Helburuen definizioa, Komunikabideak aukeratzea, Gomendioa kanpainako jarduera aldiak, Euskarriak aukeratzea, Kanpainako txostena, Estrategia eta taktika, Txertatze-egutegiaren lantzea, Aurrekontua (...). Kanpaina-itxiera. Gertakarien laburpena, Azkeneko neurketa.

Sormena

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Komunikazio publizitarioko arazoei irtenbide originalak aurkitzeko gaitasunean trebatzea. Ideatze aldiaren sortzen diren mugak gainditzea: huts egiteari beldurra edo lotsa, esate baterako. Irtenbide garbirik gabeko egoerak desblokeatzeko teknikak erabiltzea.

EDUKIAK

Sormenaren definizioa. Estrategia oinarri. Sormen-prozesuaren faseak. Copy Strategy. Sormenerako teknikak. Arauak haustea. Huts egiteari beldurra. Irizpidea eta apustua. Talde sortzaileak.

Informazioaren Zuzenbidea

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Albisteak idazteko eta beste informazio-produktu batzuk egiteko, adierazkorrak, publizitatezkoak edo aisialdikoak, egiaztatze- eta erredakzio-teknikak modu egokian erabiltzea, era horretan lanbidearen egikaritzan erantzukizun juridikoak (penalak, zibilak, lan-eremukoak edo administrazio-eremukoak) ekiditeko. Adierazpen- eta informazio-askatasunen eduki eta muga zehatzekin zerikusia duten alderdietan sakontzea.

EDUKIAK

Adierazpen- eta informazio askatasunak. Mugak. Ideologia adierazteko askatasuna eta haren mugak. Parte-hartze murriztaileak. Informazioa jasotzeko eskubidea. Sekretu ofizialak eta botere publikoen informaziora sartzeko mugak. Kontzientzia-klausula. Sekretu profesionala. Ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideak. Zuzenketa-eskubidea. Gazteen eta haurren babesa. Informazioaren profesionalaren estatutu juridikoa. Ikus-entzunezko hedabideen erregimen juridikoa.

Nazioarteko Harremanak

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Gaur egungo nazioarteko gizartearen genesisia eta egungo egoera aztertzea eta baloratzea. Gizateriak XXI. mendean maila globalean aurre egin behar dizkion prozesu, arazo eta erronka nagusiak.

EDUKIAK

Nazioarteko Gizartearen Aktoreak. Nazioarteko Sistemaren Egitura. Nazioarteko Gizartearen oinarritzko prozesuak. Gizateriak Aro Globalean dituen erronka nagusiak.

Diseinu Grafiko Aplikatua (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 18 h Magistrala; 42 h Ordenagailuko Praktikak.

HELBURUAK

Proiektu bati eustea. Diseinu grafiko aplikatua, marka-identitatea osatzen duten elementu bisualekin lan egitea. Marka bat sortzea, pausuz pausu. Marka-identitate programa osoa biltzen duen dokumentua garatzea.

EDUKIAK

Aplikazio informatikoak: Illustrator eta Photoshop. Diseinua publizitatean: Proiektua. Markaren ikus-identitatea: Proiektua. Packaging: Proiektua.

Bozera maileen Prestakuntza (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak; 7 h Laborategiko Praktikak.

HELBURUAK

Diskurtso bat era koherente eta sinesgarrian artikulatzeko gai izatea. Jende aurreko jarduna hobetzea. Jendaurreko aurkezpenak modu egokian egiteko gai izatea, edozein hedabide motaren aurrean eta edozein egoera komunikatibotan.

EDUKIAK

Komunikazio Kabineteak gaur. Bozera maileen ezaugarri eta funtzioak. Bozera maileen diskurtsoa: Jendaurrean hitz egiteko oinarriak. Bozera maileen trebakuntza etxe barruan eta etxetik kanpo. Bozera mailea eta krisia. 2.0 bozera mailea.

Euskara eta Euskal Kultura (euskarako taldea)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Komunikabideetako profesionalek euskararen erabilera eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea, hizkuntzaren normalizazioan eta biziberritzean duten erantzukizunak jabetzeko.

EDUKIAK

Hizkuntzaren arauak eta erabilera komunikabideetan. Komunikabideetako testuak: Hizkuntza Ezaugarriak; Testugintza. Kontsulta-Baliabideak.

Marketin Estrategikoa eta Interaktiboa

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Norbanakoek eta erakundeek dituzten beharriak identifikatzea eta aztertzea, erreferentziako merkatuen bilakaera jarraituz. Erakunde baterako marketin plan bat diseinatzea eta garatzea.

EDUKIAK

Marketin-plana. Enpresa-plangintza estrategikoa eta marketinaren plangintza. Marketin estrategikoa, operazionala eta interaktiboa.

Kontsumoaren Psikosoziologia eta Marketina

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Kontsumitzaileen portaera aztertu, deskribatu eta ulertzeko eredu teorikoak eta teknikak ikastea: produktuak erostea, kontsumitzaileek nola erabiltzen dituzten zerbitzuak, jarduerak, esperientziak eta ideiak, eta baita horiek. baztertzeko moduak ere.

EDUKIAK

Kontsumitzaile portaera. Aldagai psikologikoak: motibazioa, pertzepzioa, oroimena eta aktitudeak. Erabakitze-prozesua: beharriaz ohartzea, informazio bilaketa, ebaluazioa, erabakia eta erabaki ondorengo prozesuak. Kultura-ingurunearen eragina kontsumitzaile portaeran.

Komunikazioaren Kudeaketa Nazioarteko Erakundeetan (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Nazioarteko erakundeen komunikazio kudeaketari buruzko ikuspegi sistematikoa eskaintzea. Gainera kontuan edukiko du bere eragina eta kanpo proiektzioa informazio-sistema eta komunikazio publikoen sistemetan.

EDUKIAK

Nazioarteko erakundeen oinarri teoriko eta praktikoak. Nazioarteko erakundeak komunikazio sistemak bezala: Oinarrizko dimentsioak. Nazioarteko erakundeak komunikazio sistemak bezala: Berezko arazoak.

Sormena II (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Ordenagailuko Praktikak.

HELBURUAK

Teknika, baliabide eta egunean dauden joerak ezagutzearen bitartez, publizitateko sormen prozesuaren ezagutza lantzea. Sormen heldutasuna eta ikuspegi areagotu eta irekiagoa garatzea, profesional orok izan behar duen publizitateari buruzko ezagutza eta kultura orokorra izateko.

EDUKIAK

Sormena kontzeptu estrategiko bezala: Irizpidean sakondu, Estrategia ardatz bezala. Norantz doaz agentziak. Bezeroa. Profil kreatiboak. Komunikazio plana. Euskarriak: Telebista; Grafika; Irratia; Euskarri berriak; Gerrilla; Biralak; On line/off line.

Publizitateko Multimedia Errealizazioa (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Ordenagailuko Praktikak.

HELBURUAK

Gaur eguneko multimedia erako publizitate testuinguruak dakartzan erronkei aurre egitea. Presentzialak eta ez presentzialak diren errealitatei erreparatzea eta multimedia proiektuak ateratzeko beharrezkoak diren erreminta teknikoak lantzea.

EDUKIAK

Multimedia proiektuen produkzio prozesua. Materiale espresiboen erabilera multimedia publizitate proiektuetan. Erabiltzaile-sortzailea. Erabilera anitzetarako aparailuak eta multimedia publizitatea.

Komunikazioa Euskaraz: Ahozko Adierazpena Komunikabideetan (euskarako taldea)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Medioen testuinguru profesionaletako eskakizunei egokiro erantzuteko funtsezkoak diren ahozko ahalbide komunikatibo eta linguistikoak sendotzea eta garatzea.

EDUKIAK

Testua testuinguruari begira. Komunikabideetako testuen ahoskera. Ahozko testuak egituratzeko estrategiak. Testuratze-teknikak komunikabideetako ahozko testuetan. Ahozko generoak komunikabideetan. Estiloa ahozko komunikabideetan.

Prestakuntza Duala II

Hautazko ibilbidea. 24 kreditu. Praktikak enpresa edo erakundeetan.

LAUGARREN MAILA - 2. Lauhilekoa

Publizitatearen Zuzenbidea

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Publizitatearen jarduera arautzen duen ordenamendu legaleko kontzeptuak eta erakunde juridikoak zuzentasunez azaltzea. Publizitatea erregulatzen duen araudia interpretatzea eta testuinguruan kokatzea.

EDUKIAK

Publizitatea eta ordenamendu juridikoa. Lege-kontzeptua. Subjektuak. Kontratuak. Publizitate ez zilegia. Publizitate ez zilegiaren aurrean judiziozko eta judizioz kanpoko konponketa. Salmenten promozioa.

Komunikazio Estrategikoa eta Operazionala

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Komunikazioa planifikatzeko prozesua ulertzea eta ezagutzea. Iragarlearen zerbitzura dauden komunikazio teknikak eta beren aplikazioa ezagutzea.

EDUKIAK

Komunikazio-plana. Komunikazioa planifikatzeko prozesuaren kudeaketa arloak. Komunikazio teknikak.

Marketin角度 Ikerketa

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Datuen metatze eta miatze sistemak ulertzea. Internet bidezko ikerketaren metodologiak eta laginen diseinua egitea. Aldagai bakarrek eta aldagai anitzeko analisia egiteko gaitasuna, erabaki ikuspuntutik hartuta.

EDUKIAK

Marketin informazio sistema baten kontzeptuak eta osagarriak. Datu base komertzialen eraketa. Adimen lehiakorra. Ikerketa prozesuak marketinean. Ikerketaren kalitatea. Sare marketinaren ikerketarako baliabideak. Marketin erabakiak laguntzeko sistemak.

Komunitate Birtualen Kudeaketa (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 57 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Sare sozialen eta komunitate birtualen ezaugarrietara egokitutako eduki idatziak eta ikus-entzunezkoak sortzea euskarri mota guztietan. Sare sozialak eta komunitate birtualak kudeatzeko komunikazio planak diseinatzea.

EDUKIAK

Sare sozialak komunikazio tresna gisa. Komunitate birtualerako komunikazio euskarriak. Profil profesionalak. Sare sozialetan edukiak sortzea eta kudeatzea. Sare sozialen analisia eta monitorizazioa.

Komunikazio Publikoaren Zuzendaritza (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Nazioarte mailan orokortuak dauden teknika eta estrategiak aztertzea eta garatzea, bere eremua erakunde eta gobernu komunikazioa, komunikazio politikoa, hauteskunde kanpainen edota gizarte erakundeena izan daitezkeelarik.

EDUKIAK

Komunikazio publiko-politikoaren esparrua. Lidergoa. Komunikazio politikoa eta hedabideak. Hizkuntzak, erritualetak eta politikaren sinboloak. Hauteskunde kanpainen komunikazioa. Erakunde publikoen Komunikazioa. Interneten erabilera komunikazio publikoan.

Estetika Korrante Garaikideak

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Bi azken mendeetan arte munduan gertatutako prozesuak ezagutzea. Mugimendu artistikoak desberdintzea eta haien atzean dauden planteamendu estetiko eta filosofikoak identifikatzea. Korrante artistiko eta sormenaren artean dauden erlazioak lantzea, bai hedabideetako arteetan, bai eta publizitate eta hedabideetan agertzen diren ikus-entzunezkoetan.

EDUKIAK

Eredu klasikoa. Errealismoa eta irudi teknologikoa. Impresionismo eta Postimpresionismoa. Abangoardia eta Modernitatea. Espresionismoa, Kubismoa eta Futurismoa. Konstruktibismoa eta Bauhaus. Dadá eta Surrealismoa. Bigarren abangoardiak. Pop Artea. Objektu artistikoaren desmaterializazioa. Posmodernitatea.

3. EDO 4. MAILA

Komunikazioa, Generoa eta Masa Kultura Mundu Garaikidean

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

XIX. eta XX. mendeetako adierazpen kulturalak generoen arteko harremanetako egoera zehatz baten adierazpen bezala interpretatzea.

EDUKIAK

Oinarri teorikoak eta tresna kontzeptualak. Diskurtsoak eta irudi bisualak, gorputza, generoa eta irudikapena. Desberdintasun sexuala eraikitzea. Gaur egungo feminitate eta maskulinitatearen sorrera. Feminitatea irudikatua. XX. mendeko haustura sinboliko handiak.

GRADU AMAIERAKO LANA

12 kreditu

Praktikak enpresetan

Hezkuntzarako lankidetzak praktikek aukera ematen dizute **enpresa eta erakunde publiko zein pribatuen errealiterako hurbiltzeko** eta, hartara, langunean bertan ezagutzeko laneko ohiturak eta trebetasunak. Horrela, zure prestakuntza akademikoa osa dezakezu eta lan esperientzia eskuratu, titulazioan ikasitakoarekin zerikusia daukaten atazak eginez.

Praktikak borondatezkoak dira graduko **hirugarren eta laugarren mailetan**. Fakultateko irakasleen tutoretzapean egiten dira, eta haiengatik ikasleei 6 kreditu aitortzen zaizkie, hautazko irakasgaiekin egiten den bezala.

450

hitzarmen baino gehiago hezkuntza lankidetzarako

900

plaza baino gehiago praktiketarako

600

enpresa eta erakunde laguntzaile baino gehiago

Publizitatea eta Harreman Publikoetako Graduko ikasleek praktikak egiteko **200 enpresa, instituzio eta fundazio baino gehiago** dauzkate beren esku: **Komunikazio, Publizitate eta Harreman Publikoetako agentziak** (Arista, TRUPP, ROS Asociados, McCann, Aurman, Innevento, Dimensión...); enpresa eta erakundeetako **Komunikazio Departamentuak; Komunikazio Aholkularitzak; Komunikazio arloko Elkarteak;** etab.

Fakultateko webgunean lauhilabeteko bakoitzean eskaintzen diren plaza guztien **informazio gaurkotua** ikusgai dago: enpresa, eginkizunak, betebeharrak eta ordainsaria.

Mugikortasun programak

Graduko bigarren mailatik aurrera, ikasleek bi mugikortasun programatan parte har dezakete, egonaldiak egiteko atzerriko eta estatuko beste unibertsitate batzuetan ikasten. Ikastaldiaren epea aukera dezakete: lauhileko bat edo ikasturte osoa.

Hauek dira mugikortasun programak:

- Erasmus+**, Europako unibertsitateetarako: Alemania, Belgika, Danimarka, Erresuma Batua, Frantzia, Herbehereak, Italia, Norvegia, Suedia, besteak beste.
- UPV-AL**, Latinoamerikako unibertsitateetarako: Argentina, Brasil, Kolonia, Mexiko, Peru, Txile, besteak beste.
- Beste Norakoak Programa**, AEB, Kanada, Hego Korea, Filipinak eta Japoniako unibertsitateetara joateko.
- SICUE**, Estatu Espainiarreko unibertsitate nagusien arteko trukerako.

Nazioarteko mugikortasun programetan ikasleek ingelesez, frantsesez edo alemanez ikas dezakete. Horretarako, ikasleak hizkuntza horietan gaitasuna daukala egiaztatu beharko du.

230

plaza baino gehiago Europako unibertsitateetan egonaldiak egiteko




50

plaza baino gehiago Latinoamerikako unibertsitateetan egonaldiak egiteko

140

plaza baino gehiago Estatu unibertsitateetan egonaldiak egiteko

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

-  **SICUE**
-  **ERASMUS +**
-  **Latinoamerika eta Beste Norakoak.**

